

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

- **Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?**

Gure produktua bezeroengana helarazteko joango ginen hortz kliniketara gure produktua saltzera eta erakustera.

Klinikakoek gure produktua ikusterakoan, bracketsak eta bruxismoa dituzten pertsonei aukera hau eskainiko diote, bracketen tratamendua amaitu arte itxaron behar ez dezaten.

Horrez gain webgune bat sortu dugu eta bertan informazioa aurkitu ahalko dute.

WEBGUNEA: <https://sites.google.com/franciscodevitoria.net/zion-ferulak/hasiera>

Protesiak kliniketara bidaltzeko, hasieran posta bidez bidaltzea izango litzateke erabiliko genukeen lehen aukera, eta proiektua aurrera egin ahala, garraiolari bat kontratatuko genuke.

Ferulenekin arazo bat sortzen bada, adibidez ondo ez datozela edo gaizki diseinatuta daudela, klinikak jakinaraziko digu telefono bidez eta gure langileak bidaliko ditugu jasotzera, horrela berak ikusiko luke zer egin beharko zen eta behar bada berri batzuk egingo genituzken.

- **Kanalen bitartez lortzen dugula gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea, gure balio-proposamena helarazteko.**

- **KANALEN artean, honakoak bereiz ditzakegu:**

- **Komunikazio-kanalak:** Gure komunikazio kanalak izango dira, Telefonoz, WhatsApp bidez eta korreoaz.
Telefono zenbakia: +34 682403975
Gmail: Zionferulak@gmail.com
- **Banaketa-kanalak:** Gure banaketa-kanala ez da zuzena izango, erosleekin bertan ez gaudelako; korreo bidez bidaliko dizkiegulako.
- **Salmenta-kanalak:** Gure salmenta-kanala zuzeneko eta zeharkako kanalen konbinazioa izango da: zuzeneko kanala produktua telefono bidez saltzean oinarrituko da, eta zeharkako kanala banatzaileen bidez egingo da.

- **Bezeroarekiko harreman-guneak dira kanalak, eta bost fasez osatuta daude:**

- **Pertzepzioa:** Gure produktuen informazioa zabaltzeko eta gure bezeroengana iristeko, kliniketara joango gara, saltzen duguna erakusten, eta horrela, gure burua ezagutaraziko dugu, eta gainera webgune bat egin dugu ezagutarazteko.
- **Ebaluazioa:** Gure produktuak etorkizunik izango duen jakiteko, galdeketa bat prestatu dugu jendeak produktua baloratu dezan.
GALDETEGIA:
<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSd4X3BX8gl8vOn0LIvwUF34VC7m6BDxUJ28QDXSRBcT7kZnw/viewform?usp=header>
- **Erosketa:** Gure produktua erosi ahal izateko, klinikek deitu eta jakinarazi beharko digute erosi nahi dutela.
- **Entrega:** Ferulak garraiolari baten bidez entregatuko ditugu, eta erosi dituen klinikara

eramango ditu.

- **Salmenta ondorengoa:** Pazienteak ferularekin arazoren bat edo ondoezik badu, bere klinikara joan beharko du odontologoari gertatzen zaiona asaltzera, eta odontologoak telefono bidez jakinarazi beharko digu eta horrela bere arazoa konpondu ahal izango dugu.
-